**2017-07-27ko OHIKO UDALBATZA**

Irurako udaletxean, 2017ko uztailaren 27an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

**LEHENENGO GAIA**
**AURREKO AKTAK ONARTZEA (2017-06-30).**

2017ko ekainak 30eko aktaren zirriborroa aurkeztu da.
Akta aho batez onartu da.

**BIGARREN GAIA**
**ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2017/117TIK 2017/138 DEKRETURA ARTE.**

Alkateak 2017/117 dekretutik 2017/138 dekretura artekoen berri eman dio Udalbatzari.
Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

(Eztabaida badago).

## HIRUGARREN GAIA

**2017. EKITALDIKO UDAL AURREKONTUAREN 2. KREDITUEN ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udal honen 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren 2. kreditu aldaketaren (2/2017) berri eman da, alkateak proposatutakoa.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusi da.

Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazioko informazio-batzordeak 2017ko uztailaren25eko bileran hartutako irizpena ikusi da.

Hori guztia dela eta, Udalbatzak, bost boto alde eta lau aurka , onartu du honako hau:

ERABAKIA

Lehena.- Behin-behinean onartzea 2/2017 kreditu-aldaketaren espedientea, 2017ko ekonomia-ekitaldiaren aurrekontuarena. Hona hemen laburpena:

Se da cuenta del Expediente de Modificación de Créditos nº 2/2017, del Presupuesto de este Ayuntamiento del ejercicio económico de 2017, propuesta por la Alcaldía.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Cuentas Generales, Presupuesto y Administración en reunión celebrada el día 25 de julio de 2017.

Ante ello, La Corporación acuerda, por 5 votos a favor y 4 abstenciones, la adopción del siguiente acuerdo:

ACUERDA

Primero.- Aprobar inicialmente del Expediente de Modificación de Créditos nº 2 del Presupuesto del ejercicio económico de 2017, con el siguiente resumen:

A) GASTUEN HAZKUNDEA: + 136.661,46 €

| Kapitulua/ Partida | Egungo zenbatekoa | Igoera | Guztizkoa |
|---|---|---|---|
| -6. Kapitulua<br>Helburua :Hau Eskola Egokitzea.San Migel Plaza.6.<br>Partida: 1.0000.622.321.20.00.2017<br>Konpromiso Kreditua | 147.950,00 € | 0,00 € | 147.950 |
| 2018 Aurrekontua<br>1.0000.622.321.00.00.2018 | 00,00 € | 136.661,46 | 136.661,46 |

B) FINANTZAKETA: 136.661,46 €

-2018ko Udal Aurrekontu

ekarpenekin.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 laneguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, erreklamazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartu dela joko da.

Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da espedientearen laburpena kapituluka.

Hirugarrena.- Horrez gain, eta indarrean dagoen legediarekin bat, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna betetzeari buruzko txosten bat erantsi da, eta, ondorioz, Udalbatzari honako hau jakinarazi zaio:

A) 2017ko aurrekontuko 2. kreditu-aldaketaren espedientearen proposamenak betetzen ditu aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren finkatu diren helburuak.

Segundo.- Someter el expediente a información pública por el periodo de 15 días hábiles, mediante publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a efectos de reclamaciones.

En el caso de que no se presente ninguna, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Así mismo se deberá publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el resumen por capítulos del expediente.

Tercero.- Además y de acuerdo con la legislación vigente, se adjunta informe sobre el cumplimiento de la normativa en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y en consecuencia se comunica al Pleno lo siguiente:

A) Que la Propuesta de Expediente de Modificación de Créditos nº 2 dentro del Presupuesto de 2017 cumple con el objetivo de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera establecidos.

Ainhoa Ugalde andereak EHBildu-ren izenenean adierazi du bere taldea abstenitu dela, ez aurka daudelako obra hori egiteagatik, baizik proiektua herriaren irizpidea kontuan hartu gabe osatu delako.

(Eztabaida badago).

**LAUGARREN GAIA**

**"HAUR ESKOLA EGOKITZEA ETA ERAIKINAREN ERREFORMA. SAN MIGEL PLAZA, 6" PROIEKTU OBRAREN KONTRATAZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udal honek hala eskatuta "HAURRESKOLA EGOKITZEA ETA ERAIKINAREN ERREFORMA.SAN MIGEL

Por encargo de este Ayuntamiento se ha redactado el Proyecto de "ADECUACION DE

PLAZA,6" proiektua idatzi du Iñaki Arregi arkitekto teknikoak.

Udal honek parte hartzen du Haurreskolak Partzuergo publikoan.

Aipatu de proiektuaren xedea haur - eskolaren zerbitzua ematea oraingo lokaletik eraikin horretara da eta horretarako eraikinaren zati bat egokitzea.

Era berean, Proiektu honek Haurreskolak Partzuergotik aldeko txostena dauka.

Ziurtatzen da eraikinaren erabilera osoa.

Aurrekontu-kreditu nahikoa dago partida honetan:

1.0000.622.321.00.00.2017: 147.950 €
1.0000.622.321.0000.2018: 136.661,46 €

Era berean, Udalbatzari dagokio gastua onartzea.

Espedientearen izapidea larrialdikoa izango da :lehen eta azkarren zerbitzu hau pasatzera lokal berrira helburua da.Oraingo lokalean errentan dago .

Hori dela eta, bost boto alde y lau abstentzio honako hau hartuta da:

ERABAKIA

1.- Aipatu den Proiektu Teknikoa onartzea. Bere aurrekontua horrela da: 214.633,85 € .BEZ (%21):45.073,11 €. Guztira: 259.706,96 €

2.- Kontratazio-espedientea onartzea larrialdiko izapidearen eta prozedura irekiaren bidez. Eta baita kontratua

HAURRESKOLA Y REFORMA DE EDIFICIO.SAN MIGEL PLAZA,6", por el arquitecto técnico Iñaki Arregi.

Este Ayuntamiento es miembro del Consorcio público Haurreskolak .

El citado Proyecto tiene por objeto trasladar el actual servicio de haurreskola del local actual a éste , adecuando parte del edificio citado. .

El proyecto ha sido informado favorablemente por el Consorcio Haueskola.

Se acredita la plena disponibilidad del edificio.

Se tiene el suficiente crédito presupuestario en la partida:

1.0000.622.321.00.00.2017: 147.950 €
1.0000.622.321.0000.2018: 136.661,46 €

Así mismo la autorización del gasto corresponde al Pleno del Ayuntamiento.

El expediente se tramita de forma urgente para acondicionar el local citado cuanto antes , ya que el local que se usa actualmente está arrendado a este Ayuntamiento.

Ante ello, la Corporación acuerda por 5 votos a favor y 4 abstenciones, lo siguiente:

ACUERDO:

1º.- Aprobar el Proyecto Técnico citado. El presupuesto es el siguiente: 214.633,85 € .IVA (21%): 45.073,11 €.Total:259.706,96€

2º.-Aprobar el expediente de contratación, mediante el trámite de urgencia y el procedimiento abierto. Así mismo aprobar el Pliego de Claúsulas

arautuko duen Administrazio Baldintza Berezien Pleguak ere.

Administrativas Particulares que va a regir el contrato.

3.-Kontratazio-espedienteari hasiera ematea.

3º.-Iniciar el expediente de contratación.

EHBilduren abstentzioaren arrazoia aurreko puntuan bezala izan da.

**BOSGARREN GAIA**

**2017ko UZTAILAREN 6KO 130/17 ALKATEAREN DEKRETUA, 2017RAKO UDAL LANGILEEN SOLDATAREN IGOERA, BERREZTEA, HALA BADAGOKIO.**

130/2017 zka. dun 2017ko uztailaren 6ko Alkatearen Dekretua jakinarazi da:

"2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/ 2017 Legearen 18. artikuluak jasotakoa betez, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezingo dira, homogeneotasun-terminoetan, % 1 baino gehiago igo 2016ko abenduaren 31n indarrean daudenekiko, erkatutako bi denboraldietarako, langile-baliabideei nahiz haien antzinatasunari dagokienez.

Ikusita Udal honetako kargu publikoen ordainsariak behin adostuta udal-langileek izan dutenaren antzeko bilakaera eduki dutela.

Hori dela eta,

**ERABAKI DUT**:

Lehena.- Ontzat ematea Irurako Udaleko langileen ordainsariak % 1 igotzea, bai funtzionarioenak bai langile eta kargu publikoenak, 2016ko

Se da cuenta del Decreto de Alcaldía nº 130/2017 de 6 de julio de 2017:

"De acuerdo con lo dispuesto en el art. 18 de la Ley 3/ 2017 de 27 de junio, de Presupuestos Generales del Estado para 2017, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 1 por ciento respecto a los vigentes a 31 de diciembre de 2016, en términos de homogeneidad para los dos periodos de comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antiguedad del mismo.

Visto que las retribuciones de los cargos públicos en este Ayuntamiento una vez acordados han tenido una evolución similar al del personal municipal.

Ante ello

**RESUELVO**:

Primero.- Aprobar un incremento del 1% de las retribuciones del personal de este Ayuntamiento de Irura, tanto funcionario como laboral y el de los cargos públicos, respecto a los vigentes a 31 de diciembre de 2016.

abenduaren 31n indarrean daudenekiko.

Bigarrena.- Erabaki honek ez die kalterik egingo 2017rako langileen arloko lan-baldintzen inguruan hartutako erabakiei.

Segundo.- Este acuerdo se adopta, sin perjucio del acuerdo que se adopte en materia de condiciones laborales en materia de personal para 2017.

Hirugarrena.- Toki Araubidearen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22.2 artikuluaren i) atalean jasotakoa betez, Udaleko Osoko Bilkurari jakinaraztea egingo duen lehenengo bileran, hala badagokio, onar dezan."

Tercero.- Dar cuenta al Pleno de la Corporación, en la primera sesión que celebre, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 22.2, apartado i) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, para su aprobación, si procede."

Udalbatzak aho batez berretsi du.

## SEIGARREN GAIA

## 2017KO UZTAILAREN 6KO 131/17 ALKATEAREN DEKRETUA, AGERTZEKO AUZI-ERREKURTSOAN 2016KO LAN EGUTEGI ONARPENAREN AURKA, BERREZTEA, HALA BADAGOKIO.

**131/2017 zka. dun 2017ko uztailaren 6ko Alkatearen Dekretua jakinarazi da:**

"Estatuko Administrazio Orokorrak 387/2017 zenbakidun administrazioa-rekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu du Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako 1. zenbakiko Epaitegian, 2016ko lan egutegi onarpenaren aurka.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, bere 21.1 artikuluko k) paragrafoan xedatutakoarekin bat,

"Por parte de la Administración General del Estado, se interpone recurso contencioso-administrativo nº 387/2017, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 1 de Donostia, contra la aprobación del calendario laboral de 2016 .

De acuerdo con las competencias señaladas en el art. 21.1, apartado k) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local,

**ERABAKI DUT**:

1.- Aipatutako errekurtsoan alderdi demandatu gisa agertzea eta espediente administratiboa igortzea.

2.- Abokatu-laguntza udal honetako Idazkari kontu-hartzailea

**RESUELVO**:

1º.- Comparecer como parte demandada en el citado recurso y remitir el expediente administrativo

2º. -La asistencia letrada se ejercerá por el Secretario-Interventor de

Miguel Antonio Arrizabalaga jaunak emango du, eta Udal honek auzietarako ematen duen ahalorde orokorraren arabera ordezkatuko da.

este Ayuntamiento D. Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin y la representación se realizará de acuerdo con el Poder General para Pleitos otorgado por este Ayuntamiento.

3.- Jurisdikzio-organoari jakinaraztea ez dudala errekurtso horretan aurka egin zaion jarduera berari buruzko beste inolako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen berri.

3º.- Comunicar al órgano jurisdiccional de que no se tiene conocimiento de la existencia de otros recursos contencioso administrativos en relación con la misma actuación impugnada en ese recurso.

4.- Errekurtsoan bertan dauden beste interesdunei jakinaraztea.

4º.- Emplazar a los otros interesados en el recurso.

5.- Udalbatzari jakinaraztea, egingo duen lehenengo bileran, ebazpen hau berresteko, ahal bada."

5º.- Dar cuenta al Pleno de la Corporación en la primera sesión que celebre, para su ratificación, si procede."

Udalbatzak aho batez berretsi du.

**ZAZPIGARREN GAIA**

**UDAL ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETAREN ESPEDIENTE ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Alkatetzak jakinarazi du komeni dela Hilerriko tasa aldatzea kolunbarioen zerbitzua emateko.

Por parte de la Alcaldía se hace saber la conveniencia de proceder a la modificación de la tasa del Cementerio para ofrecer el servicio de columbario.

Kontuetako, Ogasuneko eta Aurrekontuko Batzordeak uztailaren 25ean egindako bileran emandako irizpena ikusita.

Visto el dictamen de la Comisión de Cuentas, Hacienda y Presupuestos en reunión celebrada el día 25 de julio.

Idazkari kontu-hartzailearen txosten ekonomiko-finantzarioa ikusita, eta zerga-arloan indarrean dagoen legediaren arabera, eta zehazki, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren arabera.

Visto el informe económico-financiero del Secretario-Interventor y de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente en materia fiscal, en concreto la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Hori guztia dela eta,

Ante ello, el Pleno por unanimidad,

Udalbatzak, aho batez, onartu du honako

ERABAKIA:

UDAL HILLERRIAREN ZERBITZU ETA EMAKIDEEN TASA.

10 urterako nitxoen eskubideen emakida: 250 €

10 urterako kolunbarioen emakida: 100 €

Nitxoan lurperatzea/ateratzea: 250 €

Kolunbarioan lurperatzea/ateratzea: 100 €

Panteoian lurperatzea/ateratzea: 400 €

Jaiegunetan: %50 errekargua

acuerda adoptar el siguiente

ACUERDO:

TASA POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS Y CONCESIONES EN EL CEMENTERIO MUNICIPAL.

Concesión de nichos para 10 años: 250 €

Concesión de columbario para 10 años: 100 €

Inhumación/exhumación en nicho: 250 €

Inhumación/exhumación en columbario: 100 €

Inhumación/exhumación en panteón: 400 €

Festivos: Recargo del 50%

Hirugarrena.- Erabakia eta espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak jasotakoa betez, eta dagokion iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Udal honetako iragarki-oholean argitaratzea. Izapidetzea arau hauen arabera gauzatuko da:

a) Espedientea Udaleko Idazkaritza Kontu-hartzailetzan egongo da.

b) Espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa izango da, iragarki hau Gipuzkoako

Tercero.-Someter el acuerdo y el expediente tramitado a información pública, de acuerdo con las normas señaladas en la Norma Foral 11/1989, de 5 de Julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa y mediante la publicación del Anuncio correspondiente en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y Tablón de Anuncios de esta Entidad. Las normas que regulan este trámite serán las siguientes:

a) Lugar donde se encuentra el expediente: Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento.

b) Plazo para examinar y presentación de reclamaciones: 30 días hábiles desde el día siguiente hábil al de la publicación de este Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en horas hábiles de la

Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik hasita, eta Udal-bulegoaren lanorduetan.

Oficina Municipal.

c) Erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan jasota datozenek.

c) Quién puede presentar reclamaciones: Los señalados en el art.17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) Erreklamazioak Irurako Udaleko erregistro orokorrean edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak Legearen adierazitako tokietan aurkeztu beharko dira.

d) Donde se pueden presentar: En el registro General del Ayuntamiento de Irura o en los lugares señalados en la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

e) Erreklamazioa Udalbatzan aurkeztu beharko dute.

e) Ante quién se presenta la reclamación: El Pleno del Ayuntamiento.

Laugarrena.- Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betiko bihurtuko da, eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Cuarto.- En el caso de que no presente ninguna el acuerdo devengará en definitivo y se procederá a la publicación de su texto completo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

## ZORTZIGARREN GAIA

**SGAE ELKARTEAREKIN HITZARMENA ONARTZEA, EGILEEN ESKUBIDEAK ORDAINTZEKO, HALA BADAGOKIO.**

“Sociedad General de Autores y Editores (SGAE) hitzarmena aurkeztu du, egileen eskubideak ordaintzeko tarifa erraztua 3.000 baino gutxiago biztanle dauzkaten udalerrientzat.

Por parte de la Sociedad General de Autores y Editores (SGAE) se ha presentado un convenio para abonar los derechos de autor para los municipios de menos de 3.000 habitantes.

Hori Ikusita, udalbatzak, aho batez hau onartu du:

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los

presentes, lo siguiente:

ERABAKIA:

1.- Hitzarmen hori onartzea baina indarrean 2018ko urriaren 1-etik aurrera izatea.

2.- Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkate-lehendakariari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko Udalaren izenean edo xede horrekin beste edozein egintza edo kudeaketa burutzeko.

ACUERDA:

1º.- Aprobar el Convenio citado pero para surtir sus efectos a partir del 1º de enero de 2018.

2º.- Facultar a la Sra. Alcalde-Presidente Ana Jesús Leunda Gurruchaga para la firma del Convenio en nombre y representación del Ayuntamiento y para la realización de cualquier otro acto o gestión con dicha finalidad.

**BEDERATZIGARREN GAIA**

**IRURAKO DANTZA TALDEAREN DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**.

Irurako Lats Dantza Taldeak diru-laguntza eskatu du Irurako Udalari bere jarduerak burutzeko 2016-2017 ikas urtean.

Bestalde Irurako Udalaren 2017ko aurrekontuan kreditu berezia dago

Irurako Lats Dantza Taldearentzako partida honetan: 1.0000.481.335.00.00.2017.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau onartu du:

ERABAKIA

Lehena.- Onartzea hitzarmen bidez 2.500-raino euroko diru-laguntza ematea, aipatu den helburuarekin.

Bigarrena.- Irurako Udaleko alkatea den Ana Jesús Leunda Gurruchaga andreari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko Udalaren izenean eta helburua betetzeko beharrezkoa den beste edozein izapide egiteko.

**HAMARGARREN GAIA**

**EH BILDU AURKEZTU DUEN "ALTSASUN GERTATU ZIREN GERTAEREI BURUZ " MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-**

EHBildu udal taldeak honako mozioa aurkezten da:

"Joan zen urriaren 15ean Altsasuko taberna batean gertatutako egitateen aurrean, non bi guardia zibil eta haien bikoteak zauritu ziren, zein gertaera hauetatik eratorri diren ondorioak ikusirik, Irurako Udalak bakearekiko eta elkarbizitzarekiko bere konpromezua berresten du eta erabateko desadostasuna agertzen du aztertutako egitateak terrorismotzat kalifikatzearekin, gazte auzipetuei neurrigabeko zigorrak ekarri baidiezaizkieke.

Hilabete hauetan zehar, makina bat izan dira Euskal Herrian osoan izan diren elkarretaratze, manifestazio eta mota guztietako ekitaldiak zeinetan pertsona, eragile zein instituzioek auzi honen baitan ematen ari den izugarrizko proportzionaltasun eza salatu dute.

Epealdi honetan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako instituzio nagusiek, tartean Nafarroako Parlamentuak zein Eusko Legebiltzarrak argi esan dute gertatuak ezin direla terrorismo ekintzatzat kalifikatu, kode penalaren 573. artikuluarenpean, eta ondorioz Nafarroan instruitu eta epaitu beharko litzatekeela.

Orain gutxi ere, Madrileko Gorte Orokorretako 74 diputatu zein senatarik, Europako Parlamentuko 52 diputatuk eta Hego Euskal Herriko 83 alkatek auziarengatik euren kezka agertu dute.

2007ko uztailaren 4ean jakin da zein eskaera egien duen Estatuko Fiskaltzak auzipetutako gazteentzako, 62 urte eta 6 hilabeteko eskaera gazteetako batentzat, 50 urte sei gazteentzat eta 12 urte eta 6 hilabete zortigarrenarentzat. Zuzenbidezko Estatu batean onartezina litzatekeen neurrigabekeria.

Guzti honengatik, Irurako Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa onartzen du:

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

1.- IRURAko Udalak erabateko desadostasuna adierazten du Fiskalaren zigor eskaeren aurrean, eta kezka handia adierazten du gertaeren bilakaerarengatik; kasua neurrigabekeria eta bidegabekeria onartezin batera heldu dela ikusita.

2.- IRURAko Udalak konpromiso irmoa adierazten dute elkarbizitzarekiko, justiziarekiko eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuarekiko, zuzenbidezko estatu demokratiko baten berezko printzipioak direlako, eta adierazten dute kasu hau inguratzen duen neurrigabekeria normaltasun eta elkarbizitza demokratikoen aurkako dela.

3.- IRURAko Udalak Nafarroako Probintzia Auzitegiaren motibazioa babesten dute egitateak terrorismotzat kalifikatzeko zantzuak ez daudela

dioenean, eta, beraz, berresten duenean Altsasun joan zen urriaren 15ean gertatutako egitateen izapideak egiteko eta epaitzeko eskumenak Iruñeko epaitegiena izan behar lukeela."

Udalbatzak, aho batez, onartu du.

**HAMAIKAGARREN GAIA**

**GALDE-ERREGUAK**.- Gai hauek jorratu dira:

**a)** Alkateak aipatu du, bi azterketa izan direla: bi lan poltsa osatzeko udal eraikinak garbitzeko peoiak eta kaleko udal brigadarako peoiak.

Ainhoa Ugalde andereak adierazi du, enteratu dela, enpresa kontratatu dela azterketa teknikoa egiteko baina lan poltsa baterako eta besteentzat ez, eta hori ez du ulertzen.

Alkateak erantzun du eraikinaren garbiketa froga egiteko izan dela. Ez da erraza froga hori egitea eta horregatik eskatu da Tolosaldeko Lanbideri bere laguntza emateko.

Mikel Iturbe jaunak adierazi du ere, froga hori oso hotza dela eta ez duela baloratzen lehen izan dira kritikak edo joera.

Idazkariak erantzun du oso zaila da baloratzea bakoitzaren joera.

OHARRA: Eztabaida osoa dago ezarrita www.irura.eus udala-udalbatzak.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:30ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA IDAZKARIA